

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

4626

AGINDUA, 2022ko urriaren 20koa, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuarena, zeinaren bitartez jabetzako, merkataritzako eta ondasun higigarrietako erregistrozailerak izendatzen baitira, Euskal Autonomia Erkidegoan hutsik dauden lanpostuak betetzeko lehiaketa arrunta ebatzi izanaren ondorioz.

Jabetzako, merkataritzako eta ondasun higigarrietako erregistroak betetzeko hasitako espedienteaz aztertu da. Espediente hori Segurtasun Juridikoaren eta Fede Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko irailaren 5eko Ebazpenaren bidez iragarritako lehiaketa arruntean sartu zen (2022ko irailaren 12ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Horrenbestez, Autonomia Estatuaren 10.22 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen– emandako ahalmenez baliatuta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Alberto Juan Montes O'Connor jauna izendatzea, Bizkaiko Merkataritza eta Ondasun Higigarrietako III. Erregistroa betetzeko (arrazoia: Carlos Alonso Olarra jaunaren lekualdatzea, 2022ko apirilaren 25eko Aginduarekin bat etorritik).

Bigarrena.– Rafael José Stampa Castillo jauna izendatzea, Azpeitiko Jabetza Erregistroa betetzeko (arrazoia: Begoña Ruiz Alutiz andrearen lekualdatzea, 2022ko apirilaren 27ko Aginduarekin bat etorritik).

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 20a.

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.